

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

AGURAINGO UDALA

Behin betiko onespena ematea Aguraingo Udalaren Hurrek Parte Hartzeko Organoaren araudiari

Jendaurrean egoteko epean erreklamaziorik aurkeztu ez denez, Aguraingo udalbatzaren 2023ko abenduaren 21eko erabakia behin betiko bihurtu da automatikoki. Erabaki horren bidez, hasierako onespena eman zitzaion Aguraingo Udalaren Hurrek Parte Hartzeko Organoaren araudiari, eta haren testu osoa argitara ematen da, guztiek jakin dezaten eta Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 70.2 artikuluan xedatutakoa betetzeko.

Aguraingo Udalaren Hurrek Parte Hartzeko Organoaren araudia

Aguraingo Udalak haurren parte hartzea sustatu nahi du herrian, Hurrek Parte Hartzeko Organo bat sortuz.

Herritarren parte hartzea eskubide bat da, baita tresna bat ere, herritarrei aukera ematen diena gure ingurunean eragina duten alderdien erabakietan eta lanketa kolektiboan parte hartzeko.

Parte hartzearen azken helburuak dira herritarren inplikazioa eta esku hartzea ahalbidetzea erabakiak hartzerakoan, bai eta garapen kolektiboa eta inplikazioa sustatzea gure ingurune sozialean ere.

Hurrek Parte Hartzeko Organoa sortuta, eskubide osoko haurrak lortu nahi ditugu, Aguraingo hainbat gizarte eragileren lana integratuz, ahaleginak helburu komunetan bateratzeko.

Haurren parte hartzea eskubide bat da, eta Haurren Eskubideei buruzko Hitzarmenaren oinarritzko lau printzipioetako bat (HEH, Nazio Batuen Batzar Nagusia, 1989), haur guztien eskubide zibil, sozial, kultural eta politikoak onartzen dituena, eta beren eskubideen titular aktibo eta gizarte eragile gisa aitortzen dituena.

Haurren parte hartzea prozesu bat da, non hurrek beren eskubidea baliatzen duten inguruko beste pertsona batzuekin elkarreaginean arituz eta beren bizi baldintza indibidual eta kolektiboetan eragina duten gaiak landuz. Prozesuan zehar, neska-mutilek komunitatean eginkizun baliagarria betetzen ari direla sentitzen dute.

1. artikulua. Balioak

Hurrek Parte Hartzeko Organo honek transmititu eta sustatu nahi dituen balioak honako hauek dira:

- Haurren eskubideak eta, bereziki, hurrek Agurainen parte hartzeko duten eskubidea sustatzea.
- Entitate sozialen arteko lankidetzeta, helburuak lortzeko ahaleginak bateratzeko.
- Hurrekiko konpromisoa.
- Gardentasuna eta erantzukizuna baliabideen administrazioan.
- Kalitatea udal programak eta zerbitzuak ezartzean.
- Haurren eskubideak urratzen dituzten gertaerekiko sentsibilitatea.
- Negoziazioa eta elkarrizketa, adostasunak lortzeko.

2. artikulua. Helburuak

Parte hartzeko organo honek honako helburu hauek ditu:

- Haurrek zuzenbidezko eragile gisa parte hartzeko espazioak garatzea, haien beharrak eta ekarpenak zuzenean ezagutzeko eta Aguraingo udal agenda politikoan txertatzeko.
- Udalak neurri egokiak proposatzea toki esparruan haurren ongizatea eta haurren eskubi-deen garapena bermatzeko, arreta berezia eskainiz Aguraingo haur kalteberenei.
- Haurrak ahalduntzea eta informatzea, beren ingurunean pentsatu ahal izan dezaten eta ingurune horiek beren premien arabera definitu ahal izan ditzaten, dituzten eskubideak defendatzeko eta erantzukizunak beren gain hartzeko estrategiak emanez, baita kolektiboaren onerako ere, eta ez soilik interes pertsonalerako.
- Aguraingo haurren artean gaitasunen garapena sustatzea, hala nola pentsamendu kritikoa, elkarrizketa, elkarlana eta trukea.
- Herritartasun aktiboan heztea, haurrek ingurune hurbilenaren garapenean ekarpen arduratsua egin dezaten sustatuz.
- Udal tresnak eta espazioak ematea, haurren eta udalaren arteko lankidetzaren, eztabai-daren eta erantzunkidetasunaren espermentazioa bermatzeko.
- Haurrek Parte Hartzeko Organoaren bidez egiten diren eskaera eta proposamen guztiak jasotzea eta entzutea.

3 artikulua. Berariazko helburuak

Haurrei dagokienez:

- Aguraingo oinarrizko alderdi guztiei buruzko informazioa ematea.
- Autonomia sustatzea, benetako protagonismoa eta eragin soziala emanez.
- Kultura demokratikoarekin eta parte hartzearekin lotutako gaitasunak, eskumenak eta trebetasunak piztea.
- Udalak hartzen dituen erabakiekin lankidetzeta eta konplizitate giroa sortzea, komunitatearen parte sentituz.

Udalari dagokionez:

- Haurren ikuspegia kontuan hartzen duten udal programak garatzea.
- Haurrak udal gobernuko taldeetara hurbiltzea.
- Herritarrek parte hartzeko programa bat garatzea, Aguraingo hainbat alderdi ezagutarazteko.
- Parte hartze demokratikoaren esanahian heztea.

Ikastetxeei dagokienez:

- Ikastolak Aguraingo errealitate sozialarekin eta toki erakundearen funtzionamenduari lotzea.
- Haurren eskubideekin lotutako zeharkako hezkuntza edukiak ematea.

4. artikulua. Eginkizunak

Haurrek Parte Hartzeko Organoa udal politikan ordezkari gisa duen gune bat da. Haurren eta udalaren arteko komunikazio bidea da.

Gainera, organo aholku emaile iraunkorra da, ikasturtean zehar aldi-aldi ohiko bilerak egiten dituen, eta, behar izanez gero, ezohiko bilerak egin ditzakeena.

Azken batean, Aguraingo haurren parte hartzea antolatzea du helburu, haien iritziak, beharrak eta kezkek helarazteko gune bat eskainiz, eta eragiten dieten gaietarako buruzko ideiak proposatuz, udal agendan sartzeko.

5. artikulua. Haurrek Parte Hartzeko Organoaren ezaugarriak

Haurrek Parte Hartzeko Organoko kideek borondatez eta jakinaren gainean hartuko dute parte. Hau da, parte hartzaileek zentzua, prozesua, arauak eta abar ulertuko dituzte.

Horrela, benetako tresna izan nahi du, udalerriaren funtzionamenduan eta hartu beharreko erabaki politikoetan eragina izan dezaten, eta bide bat eratu nahi du, haurrek informazioa lortzeko eta ordezkari politikoekin eta tokiko beste eragile batzuekin hitz egiteko aukera izan dezaten. Azkenik, beren eskubideen eta herritartasun aktiboaren kontzientzia eskuratzea eta garatzea nahi da, beren eskubideak eta betebeharrak ikasiz eta aplikatuz.

6. artikulua. Haurrek Parte Hartzeko Organoaren osaera

Aguraingo Haurrek Parte Hartzeko Organoa behar bezala garatzeko, talde eragile bat sortu da, helburu hauek betetzen dituena:

- Haurrek Parte Hartzeko Organo hori udal mailan bultzatzea.
- Organoa abian jartzeko lan plana egitea. Organoaren eginkizun nagusiak eta osaera definitzea, bai eta organoaren funtzionamendua, urteko lan ildoak eta organo horren jarraipena ere.
- Aguraingo haurrei parte hartzeko baliabideak ematea.

Talde eragilearen osaera honako hau izango da:

- Alkatea, organoko lehendakari gisa jardungo duena.
- Gizarte politiketako zinegotzia (organo horren ardura duen udal arloa), organoko lehendakariorde gisa jardungo duena.
- Prebentzio komunitarioko teknikaria, organoko idazkari gisa jardungo duena.
- Udaleko teknikariak. Gizarte langilea.
- Oposizioko alderdi politikoaren ordezkaria.
- Gazte programen arduraduna.

Aholkularitza talde bat ere egongo da, talde eragileko kideek eta Aguraingo haurrekin lotura duten entitate eta pertsonen osatua (ikastetxeak, musika eskola, gazte elkarteak, Gazteleku). Helburua da Haurrek Parte Hartzeko Organoaren funtzionamendu egokirako interesgarriak diren alderdiei buruzko informazioa ematea, alderatzea eta eztabaidatzea. Talde hori urtean bitan biltzea planteatzen da.

Talde eragileak osatzen duten pertsonen gain, Aguraingo haurrek organo horretan parte hartzea planteatzen da. Horretarako, eta adin txikiko kideen kopurua heldu kopurua baino nabarmen handiagoa izan dadin, 16 haurrek parte hartzea planteatzen da, Aguraingo ikastoletan egiten diren tailerretan parte hartzen duten ikasgela bakoitzeko 2 ordezkari (8 ikasgela), alegia.

Haurrak, ahal dela, Lehen Hezkuntzako 5. eta 6. mailakoak (10-12 urte) izatea erabaki da, nahiz eta etorkizunean beste adin batzuetara zabal daitekeen.

Haurrek Parte Hartzeko Organoaren aniztasuna sustatuko da, neska eta mutilen osaera orekatua izan dadin, eta, betiere, premia bereziak dituzten haurren, egoera ahulenean dauden haurren eta Agurainen bizi diren beste kultura batzuen ordezkariak kontuan hartuta.

Organoan erabilitako hizkuntzari dagokionez, euskara erabiliko da hizkuntza nagusi gisa urtean zehar planteatutako jardueretan, eta ez da ahaztuko gaztelania erabiltzea ezinbestekoa den guztian hizkuntza nagusia menperatzen ez duten parte hartzaileen kasuan.

7. artikulua. Funtzionamendua

Haurrek Parte Hartzeko Organoa osoko bilkuretan eta lantaldeetan antolatzen da.

1. Osoko bilkurak.

Osoko bilkuren helburua da udal arduradunek eta teknikariek haurrei udal agendan landu nahi dituzten gaiak planteatzeko guneak izatea, edo adingabeek lantaldeetan landutako gaiak buruz dituzten iritzia eta proposamenak ordezkari politikoei helarazteko guneak izatea.

Talde eragileko kideek eta hautatutako ordezkariak hartuko dute parte, haurrek banaka parte hartzeko aukerari uko egin gabe. Osoko bilkura alkateak (organoko presidente gisa) edo talde eragileak izendatutako ordezkari politikoa dinamizatuko du. Osoko bilkura horiek Aguraingo Udalean egingo dira.

Urtean 2 osoko bilkura egingo dira. Bilera bat azaroan egingo da, ikasturtearen hasierarekin eta haurren eskubideen eguna ospatzeko (azaroaren 20a), eta beste bat ikasturte amaieran, lantaldeetan lortutako emaitzen laburpen eta balantze gisa.

Haurrek Parte Hartzeko Organoko lehendakariak bi bilera (osoko bilkurak) deituko ditu ikasturte bakoitzeko (ikasturtearen hasieran eta amaieran). Organoren osoko bilkuren ohiko bilkuretarako deialdia behar bezala jasoko dela bermatzen duen edozein bide erabiliz egingo da, gutxienez bost egun lehenago ohiko bilkuretarako eta bi egun lehenago ezohiko bilkuretarako. Deialdiarekin batera, gai zerrendako gaiak buruzko dokumentazioa bidaliko da. Lehendakariak zehaztuko du gai zerrenda, hautatutako ordezkariak eta talde eragileko kideak jasotako proposamenak kontuan hartuta.

Prozesuan zehar, gairen bat bozkatu behar bada, bozketa eskua altxatuta egingo da. Akordiorik lortzen ez bada, gehiengo soil ez erabakiko da. Berdinketa gertatuz gero, lehendakariaren botoak erabakiko du, edo, hura ez badago, lehendakariordearenak.

2. Lantaldeak.

Saio horietan lantaldeak dinamizatzen eta koordinatzen dituen talde eragilearen ordezkariak eta/edo kanpoko dinamizatzaileak parte hartuko dute bai eta hautatutako ordezkariak ere (talde horietan tokiko beste eragile batzuek ere parte har dezakete, saio bakoitzean lantzen diren gaien arabera).

Lantalde horietarako bi lan ildo proposatzen dira:

- Bat, udal agendatik eta udalak landu ditzakeen gaietatik sortua, hala nola jaiak, hezkuntza, hirigintza, ingurumena, aisia eta denbora libre, bizikidetzak, azpiegiturak...
- Beste bat, haurren proposamenetatik sortua eta udalerrian aplikatu daitekeena.

Saioak bi hilean behin egingo dira. Ikasturtearekin hasiko da (iraila-urria) ekainera arte. Ikasturtean, guztira, 5 lan saio egingo dira. Lantalde horiek eskolaz kanpoko ordutegian bilduko dira, eta gehienez 2 orduko iraupena izango dute, haurrek eta taldearen dinamizatzaileak planteatutako aurreko gai zerrenda batekin. Lantaldeak udaletxean edo jarduerarako egokia den udal espazio batean egingo dira.

Kontuan hartu behar dira, halaber, parte hartzeko beste mekanismo posible batzuk, Haurrek Parte Hartzeko Organon dauden haurrengandik harago doazenak, eta parte hartzeko aukerak herriko beste adingabe batzuek zabaldu behar dira; adibidez, ikastolatan eta beste udal espazio batzuetan jarduera osagarriak eginez, postontzi fisikoak edo birtualak jarritz eskariak jasotzeko, eta zabalkunde ekintzak eginez. Alderdi hori talde eragileak aztertu eta garatuko du.

8. artikulua. Kideak hautatzea eta berritzea

Parte Hartzeko Organoko lehendakaria eta idazkaria karguaren arabera hautatuko dira.

Aguraingo ikastolen bidez hautatuko dira ikasleen ordezkariak eta ordezkariak, bozketa bidez edo zozketa bidez, borondatez aurkeztzen diren pertsonen artean. Kasu horretan, ohikoa da ordezkariak ikasturtean zehar parte hartzen duten geletan aukeratzea.

Organo horretarako ordezkoak ere aukeratuko dira, eta haien eginkizuna izango da edozein arrazoi dela-eta partaidetza organoan planteatutako jardueretan baja hartzen duten haurren plaza betetzea. Kasu horretan, gela bakoitzeko 2 ordezko aukera daitezke.

Hautaketa egin ondoren, gurasoek edo tutoreek baimena eman beharko dute Hurrek Parte Hartzeko Organoan parte hartzeko. Baimen horrek irudi eskubideen baimena barne hartzen du, ondoren udalak egokitzen dituen kanaletan egindako lana islatzen duten ikus entzunezko produktuak erabiltzeko.

Urtero berrituko dira Hurrek Parte Hartzeko Organoaren kideak, ikasturtearen hasieran, irailan, udaleko osoko bilkuretan eta lantaldeetan parte har dezaten. Bi urtean behingo berritzeen kasuan, lehenengo urtean ordezkarien erdia berritzen da, eta beste erdia hurrengo urtean; beraz, parte hartzeko organoaren ordezkarien zati batek lan dinamika ezagutzen du beti.